UZTARITZEKO HERRIA

PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU JEUDI 28 SEPTEMBRE 2023

**Le vingt-huit septembre deux mille vingt-trois,** à dix-heures heures, le Conseil Municipal d'UZTARITZE, régulièrement convoqué, le vingt et un septembre deux mille vingt-trois, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de **Monsieur Bruno CARRERE, Maire.**

2023ko IRAILAREN 28KO HERRIKO BILTZARRA AKTA.

**Bi mila eta hogeita hiruko irailaren hogeita zortzian,** arratseko zazpietan, UZTARITZE-ko Herriko biltzarra, bi mila eta hogeita hiruko irailaren hogeita batean ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, **Bruno CARRERE Jaun Auzapezaren** lehendakaritzapean.

Etaient présents / Hor ziren : M. CARRERE Maire / Auzapeza, Mmes GALLOIS, MARTY-CHALEON, SEMERENA – OLAIZOLA andereak, MM. GOYHENECHE, IBARBOURE, BLAIN, MAILHARRANCIN jaunak Adjoints / Axuantak, Mmes, DOYHENART-ARANCED, MOUESCA, ETCHEBARNE, LARRIEU, ARMSPACH-LAGAN, BONTAN andereak, MM. ESTEINOU, ARBURUA, ROUGET, SERRANO, URRUTIA, SOCODIABEHERE, SARRATIA CENDRES, DARQUY, DESGROLARD, RUYS, LASTIRI jaunak Conseillers municipaux / Herriko hautetsiak.

Etaient excusés / Barkatuak : Mme CEDARRY anderea (procuration / ahalordea à M. CARRERE jaunari), Mme MOULIA – CASABONNET anderea (procuration / ahalordea à Mme. MOUESCA andereari), Mme DO COITO-SABIO anderea (procuration / ahalordea à M. CENDRES jaunari),

Secrétaire de séance / Bilkurako idazkaria : Monsieur Christian SOCODIABEHERE jauna

* APPROBATION A L'UNANIMITE DU PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU 6 JUILLET 2023

*Ustaritz avec bon sens : il y a une erreur sur la première ligne, il faut lire 19 heures au lieu de 10 heures. Nous pensons que c'est une erreur de frappe.*

*Nous souhaiterions également que les débats figurent avant les votes sur les procès-verbaux et enfin, Jean-François Ruys est noté absent alors qu'il était excusé.*

*UB : nous modifions tout cela.*

* 2023KO UZTAILAREN 6EKO HERRI KONTSEILUKO AKTAREN ONARPENA AHO BATEZ.

*Ustaritz avec bon sens : lehen lerroak huts bat bada, 19:00ak irakurri behar da eta ez 10:00ak. Gure ustez, jotze akatsa da.*

*Bestalde, bildumetan eztabaidak bozak aitzin ager daitezen nahi genuke, eta azkenik, idatzia da Jean-François Ruys ez dela etorri, besterik gabe; alta, abisatu zuen.*

*UB: hori guzia aldatuko dugu.*

## * AFFAIRES GENERALES

### 1- INSTALLATION DE MONSIEUR MICHEL SARRATIA EN QUALITE DE CONSEILLER MUNICIPAL EN REMPLACEMENT DE MONSIEUR DENIS ROUAULT DEMISSIONNAIRE.

Monsieur le Maire présente le rapport suivant,

Il informe que par courrier daté du 13 septembre 2023, Monsieur Denis ROUAULT a exprimé le souhait de se démettre de ses fonctions de Conseiller Municipal.

## * ARAZO OROKORRAK

### 1- MIXEL SARRATIA JAUNA HERRIKO KONTSEILARI IZENDATZEA DENIX ROUAULT JAUNAREN ORDEZ, AZKEN HORREK DIMISIOA EMAN BAITU.

Auzapez jaunak txostena aurkeztu du:

Auzapez jaunak jakinarazi du 2023ko irailaren 13ko gutun batean Denix ROUAULT jaunak herriko kontseilari funtzioa utzi nahi zuela adierazi zuela.

Monsieur le Maire rappelle au Conseil Municipal que conformément aux dispositions de l'article L.270 du Code Electoral, le candidat venant sur une liste immédiatement après le dernier élu est appelé à remplacer le Conseiller Municipal élu sur cette liste dont le siège devient vacant.

Monsieur Michel SARRATIA, candidat venant immédiatement après le dernier élu de la liste UZTARITZE BAI sera élu Conseiller Municipal.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- PREND ACTE de l'installation de Monsieur Michel SARRATIA, en sa qualité de Conseiller municipal d'Uztaritze.

Auzapez jaunak herriko kontseiluari oroitarazi dio, Hauteskundeen Kodearen L.270 artikuluari jarraiki, herriko kontseilari baten lekua hutsik gelditzen delarik, zerrenda horretan azkenik hautetsi pertsonaren gibeletik heldu den pertsonak ordezkatu behar duela.

Mixel SARRATIA jauna da UZTARITZE BAI zerrendan azkenik hautetsi pertsonaren ondotik heldu den lehena. Beraz, herriko kontseilari izendatua izanen da.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak aho batez :

- KONTUAN HARTZEN DU Mixel SARRATIA jauna Uztaritzeko herriko kontseiluko kide izendatua izan dela.

## 2- ASSEMBLEES – DESIGNATION DES REPRESENTANTS DE LA COMMUNE D'UZTARITZE POUR SIEGER AU SEIN DU BILTZAR DES COMMUNES

Monsieur le Maire présente le rapport suivant :

Après plusieurs années de pandémie où il a été empêché de se réunir, le conseil d'administration du Biltzar des communes sera de nouveau réuni dans les semaines à venir.
Afin d'y assurer la représentation de la commune, il y a lieu de désigner deux élus au sein du Conseil municipal afin d'y siéger (un titulaire et un suppléant).

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité DESIGNE :

- Monsieur Bruno CARRERE, titulaire,
- Madame Françoise GALLOIS, suppléante.

## 2- BILTZARRAK – HERRIEN BILTZARREAN PARTE HARTUKO DUTEN UZTARITZEKO HERRIKO ORDEZKARIEN IZENDATZEA

Auzapez jaunak txostena aurkeztu du:

Hainbat urteko pandemian ezin bilduz egon ondoan, heldu diren asteetan, herrien Biltzarraren administrazio kontseilua berriz bilduko da.
Gure herriaren ordezkatzeko, herriko kontseiluko bi hautetsi izendatu behar dira (titular bat eta ordezko bat).

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak aho batez IZENDATZEN DU :

- Bruno CARRERE jauna, titularra,
- Françoise GALLOIS anderea, ordezkoa.

## 3- ASSEMBLEES – DESIGNATION DE MONSIEUR MIKEL GOYHENECHE, REPRESENTANT DE LA COMMUNE AU SEIN DE L'ASSEMBLEE SPECIALE DE LA SOCIETE PUBLIQUE LOCALE PAYS BASQUE AMENAGEMENT (SPL)

Monsieur le Maire présente le rapport suivant :

Par délibération du 21 juillet 2022, Monsieur le maire a été désigné pour représenter la commune au sein de l'Assemble spéciale appelée à réunir les communes qui ne peuvent directement siéger au sein du Conseil d'administration de la Société Publique Locale Pays Basque Aménagement.

Monsieur CARRERE a été nommé par la communauté d'Agglomération Pays basque pour la représenter au

## 3- MIKEL GOYHENECHE JAUNA HERRIKO ORDEZKARI GISA IZENDATZEA IPAR EUSKAL HERRIKO ANTOLAMENDURAKO SOZIETATE PUBLIKOAREN BILTZAR BEREZIAN (SPL)

Auzapez jaunak txostena aurkeztu du:

2022ko uztailaren 21ean, herriko kontseiluak deliberatu zuen Auzapez jaunaren izendatzea Ipar Euskal Herriko antolamendurako tokiko sozietate publikoaren biltzar berezian herriaren ordezkatzeko. Biltzar horrek zuzenean administrazio kontseiluko kide izan ahal ezin diren herriak biltzen ditu.

Euskal Hirigune Elkargoak CARRERE jauna izendatu du SPLeko administrazio kontseiluan elkargoaren

sein du Conseil d'administration de la SPL au titre des 11 sièges qu'elle détient au regard du capital souscrit.

Afin d'éviter toute équivoque dans l'exercice des fonctions au sein de l'Assemblée spéciale et du Conseil d'administration, il est demandé au Conseil Municipal d'Uztaritze de nommer un autre élu pour la représenter.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- DESIGNE Monsieur Mikel GOYHENECHE représentant de la commune au sein de l'assemblée spéciale de la SPL.

<u>* ENFANCE/JEUNESSE</u>

<u>4- APPROBATION DU REGLEMENT DES SERVICES PERISCOLAIRES ET CENTRES DE LOISIRS</u>

Madame Gallois présente le rapport suivant :

Dans le cadre de sa politique éducative la commune d'Ustaritz met en place et organise différents services périscolaires et d'accueils collectifs de mineurs à destination des enfants et de leurs parents.

Ainsi, le règlement intérieur des accueils municipaux actualisé et annexé au présent projet de délibération est soumis à l'approbation du Conseil municipal.
Il sera effectif à compter du 15 octobre 2023 et fera l'objet d'une communication vers les familles concernées.

Vu le code général des collectivités territoriales ;
Vu le code de l'éducation ;
Vu le code de l'action sociale et des familles ;
Vu le code de la santé publique ;
Vu le projet éducatif de la commune d'Uztaritze ;
Vu ledit règlement ;

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- APPROUVE le règlement intérieur actualisé des services périscolaires et accueils de mineurs municipaux joint en annexe de la présente délibération,

- DIT que ledit règlement intérieur sera mis en application en lieu et place du précédent règlement à compter du 15 octobre 2023, et fera l'objet d'une communication en amont auprès des familles,

- AUTORISE M. le Maire à signer toute pièce à cet effet et à prendre toute disposition utile à la mise en œuvre et à l'exécution de ce règlement.

ordezkatzeko, hartuak dituen kapiralak direla eta 11 jarleku baititu.

Biltzar nagusian eta administrazio kontseiluan dituen funtzioen artean nahasmendurik gerta ez dadin, Uztaritzeko herriko kontseiluari galdegin zaio beste hautetsi baten izendatzea bere ordezkari.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak aho batez :

Mikel GOYHENECHE jauna SPLeko biltzar berezian herriko ordezkari gisa IZENDATZEN DU.

<u>* HAURTASUNA / GAZTETASUNA</u>

<u>4- ESKOLALDI INGURUKO ZERBITZUEN ETA AISIALDI ZENTROEN ARAUDIAREN ONARTZEA</u>

Gallois anderak txostena aurkezten du :

Hezkuntza politikaren baitan, Uztaritzeko herriak eskolaldi inguruko zerbitzuak eta adingabekoen taldeko harrera zerbitzuak plantan ematen ditu, haurrentzat eta beren burasoentzat.

Herriko harrera zerbitzuen barne araudi eguneratua deliberamendu proiektu honi erantsi diogu, eta herriko kontseiluak onartu behar du.
2023ko urriaren 15etik goiti indarrean izanen da eta dagokien familiei jakinaraziko zaie.

Lurralde Elkargoen Kode Nagusia kontuan izanki;
Hezkuntzaren kodea kontuan izanki;
Gizarte ekintzaren eta familien kodea kontuan izanki;
Osasun publikoaren kodea kontuan izanki;
Uztaritzeko herriaren hezkuntza proiektua kontuan izanki;

Aipatu araudia kontuan izanki;

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak aho batez :

- Deliberamendu honi erantsi eskolaldi inguruko zerbitzuen eta adingabeen harrera zerbitzuen barne araudi eguneratuaren ONARTZEN DU,

- 2023ko urriaren 15etik goiti barne araudi hori aitzinekoaren ordez beteko dela eta aitzinetik familiei jakinarazten ahalko zaiela ADIERAZTEN DU,

- Auzapez jaunari gai horri buruzko agiri guzien sinatzeko eta araudi horren betetzeko behar diren neurri ororen hartzeko BAIMENAREN EMATEA.

*Ensemble pour Ustaritz* : *Peut-on avoir une idée du nombre d'enfants qui ne peuvent accéder à ce service.*

*UB : Pour les mercredis, il doit y avoir une quarantaine d'enfants que l'on ne peut accueillir. Ce nouvel outil permettra de réajuster et d'affiner les réservations. Concernant les vacances scolaires, nous proposons systématiquement aux familles une réorientation soit auprès de Uda Leku, soit auprès des Centres de loisirs des communes voisines.*

## 5- MISE A DISPOSITION D'INTERVENANTS EXTERIEURS DANS LE CADRE DE L'EPS A L'ECOLE

Madame Gallois présente le rapport suivant,

L'activité « Education Physique et Sportive » fait partie de l'acquisition des connaissances et compétences directement référée au « socle commun » que tout élève doit savoir et maîtriser à la fin de la scolarité obligatoire.

A ce titre et compte tenu des spécificités de l'activité, les partenaires et notamment les Collectivités Locales, peuvent mettre à disposition des établissements, du personnel afin d'intervenir dans le cadre des projets pédagogiques élaborés et mis en œuvre par les enseignants.

Ces intervenants favorisent ainsi l'ouverture des écoles au monde extérieur et leur apportent des connaissances techniques propres à l'activité, de nature à développer une approche pédagogique appropriée.

Conformément à la circulaire n°92-196 du 03 Juillet 1992, portant sur la participation d'intervenants extérieurs aux activités d'enseignement dans les écoles Maternelles et Elémentaires, des conventions doivent être conclues entre la Collectivité Territoriale et les Etablissements Scolaires.

Ainsi, dans la dynamique déjà engagée ces dernières années et soucieuse de permettre à chaque enfant scolarisé sur la commune d'accéder à des parcours d'apprentissage et d'initiations riches et variés, la Municipalité entend maintenir son engagement et renouveler la Convention Cadre de Partenariat pour la Mise à disposition d'Intervenants Extérieurs « EPS » pour l'année scolaire 2023/2024.

Sont concernés par ce dispositif, 4 Educateurs Territoriaux des Activités Physiques et Sportives (ETAPS) qui interviendront dans les établissements scolaires de la Commune : Ecole Publique d'ARRUNTZ

*Ensemble pour Ustaritz* : *Jakin daiteke guti gorabehera zenbat haurrek ezin duten zerbitzu hori ukan?*

*UB: Asteazkenetan, berrogei bat haur dira hartu ezin ditugunak. Tresna berri horri esker, erreserbak berregokitzen eta fintzen ahalko dira. Eskola oporrei dagokienez, familiak beti bideratzen ditugu, Uda Lekura ala ondoko herrietako aisialdi zentroetara.*

## 5- ESKOLAKO GORPUTZ HEZIKETA SAIOETAN KANPOKO IRAKASLEEN ESKURA EMATEA

Gallois andereak txostena aurkeztu du:

"Gorputz eta Kirol Heziketa" jarduera ikasle guziek derrigorrezko eskolaldia bururatzean jakin eta menderatu behar duten "oinarri komunari" zuzenean dagozkion ezagutzen eta gaitasunen parte da.

Hori dela eta, eta jardueraren berezitasunak kontuan izanik, partaideek, eta bereziki Tokiko Elkargoek, langileak ikastetxeen eskura eman ditzakete, irakasleek prestatu eta gauzatu proiektu pedagogikoetan parte har dezaten.

Kanpoko irakasle horiek eskolak mundura zabaltzen laguntzen dituzte, jarduerari dagozkion ezagutza teknikoak ekartzen dizkiete eta ikusmolde pedagogiko egokiaren garatzeko parada ematen die.

1992ko uztailaren 3ko ama-eskolako eta lehen mailako eskoletako irakaskuntza-jardueretan kanpoko irakasleek parte hartzeari buruzko 92-196. zirkularraren arabera, Lurralde Elkargoaren eta Eskolen artean hitzarmenak egin behar dira.

Hala, azken urteetan abiatu dinamikari jarraiki eta herrian eskolatua den haur orori ikaskuntza ibilbide aberats eta anitzaren egiteko paradaren emateko xedez, Herriak bere engaiamenduari eutsi nahi dio eta 2023/2024 ikasturterako gorputz heziketan kanpoko irakasleen eskura emateko Partaidetzarako Esparru Hitzarmena berritu nahi du.

Dispositibo hori gorputz eta kirol jardueretako lurraldeko 4 hezitzaileri dagokie, eta herriko eskola hauetan arituko dira: Arruntzako eskola publikoa / Heraitzeko eskola publikoa / Idekia eskola publikoa / Ikastola / St Vincent eskola pribatua. Astean 5 aldiz hartuko dute parte (13:30etik 16:30era), eta esku

/ Ecole Publique d'Herauritz / Ecole Publique Idekia / Ikastola / Ecole privée St Vincent à raison de 5 interventions hebdomadaires (de 13h30 à 16h30) et 1h00 de préparation par intervention.

Il est rappelé qu'il s'agit désormais d'agents, de la communauté d'agglomération Pays Basque, intervenant à la piscine Landagoien, que cet établissement public a accepté par convention de mettre à la disposition de la commune d'Uztaritze pour une durée d'une année.

Les agents bénéficieront, par ailleurs, de 20h00 de préparation annuelle positionnées en début d'année scolaire afin d'articuler l'organisation et la planification des séances avec les enseignants et les directeurs des établissements.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- APPROUVE la mise à disposition des Educateurs Sportifs, par la communauté d'agglomération Pays Basque, intervenant à la piscine Landagoien à la commune d'Uztaritze ;

- APPROUVE la mise à disposition, à titre gratuit, des Educateurs Sportifs auprès des établissements scolaires concernés ;

- AUTORISE Monsieur le Maire à signer tous les documents afférents à cette mise à disposition.

hartze bakoitzarentzat oren bateko prestaketa ukanen dute.

Oroitarazten dizuegu orain Euskal Hirigune Elkargoko langileak direla, Landagoien igerilekuan esku hartzen dutenak, eta establezimendu publiko horrek, hitzarmen bidez, Uztaritzeko herriaren esku ematen dituela, urtebeterako.

Bestalde, langileek urtean 20 prestaketa oren ukanen dituzte, ikasturte hastapenean, eskoletako irakasle eta zuzendariekin saioen antolatzeko eta planifikatzeko.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak aho batez :

- Euskal Hirigune Elkargoak Landagoien igerilekuan esku hartzen duten kirol hezitzaileak Uztaritzeko herriaren eskura ematea ONARTZEN DU;

- Kirol Hezitzaileak, urririk, aipatu eskolen esku ezartzea ONARTZEN DU;

- Auzapez jaunari eskura emate horri dagozkion agiri ororen izenpetzeko BAIMENA EMAITEN DU.

## * URBANISME – TRAVAUX - VOIRIE

### 6- AFFAIRES FONCIERES - RETRAIT DE LA DELIBERATION N°4 DU CONSEIL MUNICIPAL DU 13/04/2023 ;

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant :

Par délibération n°4 du 13 avril 2023, le Conseil municipal avait autorisé la signature d'un acte de servitude relatif à la canalisation d'eaux pluviale empruntant les parcelles cadastrées AD 508, AD 1018, AD 1017 et AD 157.
Certains propriétaires ont fait part de leur souhait de négocier l'accord générant ladite servitude.

Il y a donc lieu d'annuler ladite décision, et de rouvrir les discussions avec les propriétaires concernés.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à la majorité :

- ANNULE la décision n°4 prise en séance du 13 avril 2023, par laquelle était autorisée la signature d'un acte de servitude relatif à la canalisation d'eaux pluviale

## * HIRIGINTZA – OBRAK – ERREPIDEAK

### 6- LUR JABETZA GAIAK – 2023/04/13KO HERRIKO KONTSEILUAREN 4. DELIBERAMENDUAREN EZEZTATZEA;

Goyheneche jaunak txostena aurkezten du :

2023ko apirilaren 13ko 4. deliberamenduan, herriko kontseiluak AD 508, AD 1018, AD 1017 eta AD 157 kadastra erreferentziak dituzten lursailetatik iragaten den euri urendako hodiei buruzko bide zor agiriaren sinatzeko baimena eman zuen.
Jabe batzuek jakinarazi dute bide zor hori eragiten duen akordioa negoziatu nahi dutela.

Beraz, erabaki hori ezeztatu behar da eta dagozkien jabeekin eztabaida berriz abiatu behar da.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak gehiengoak :

- 2023ko apirilaren 13ko 4. Deliberamenduaren EZEZTATZEN DU, herriko kontseiluak AD 508, AD 1018, AD 1017 eta AD 157 kadastra erreferentziak dituzten lursailetatik iragaten den euri urendako

empruntant les parcelles cadastrées AD 508, AD 1018, AD 1017 et AD 157.

*<u>Ustaritz avec bon sens</u> : quelles seront les conséquences de la nouvelle proposition ? Lors de la séance du 14 avril, je vous avais dit qu'il y aurait des conséquences sur le domaine public indirectement. Suite aux derniers gros orages, il y a eu des conséquences sur la partie empierrée qui descend jusqu'au Moulin de Haitze. C'est une conséquence directe parce que vous accordez à des promoteurs la possibilité de déverser ces eaux. Il faut qu'elles soient dirigées directement sur le domaine public. Si cela avait été fait, elle aurait pris la direction d'un petit ruisseau qui va directement sur la Nive. Sur ce cas précis, ça déborde et ça empiète sur le domaine public. Si modification il y a, quelles sont les conséquences ?*

*<u>UB</u> : C'est une affaire de privé à privé puisque c'est un lotissement privé qui déverse chez un privé. Notre domaine, c'est le chemin de Gaineko Landak qui lui se déverse dans le réseau du domaine privé. Les eaux pluviales urbaines sont une compétence de la CAPB et nous travaillons actuellement à l'élaboration d'une carte qui détermine tout le réseau de déversement des eaux pluviales. Cela ne se fait malheureusement pas du jour au lendemain. Théoriquement, toutes ces maisons sont équipées de bassins de rétention. Si tout cela est bien fait et cela reste à contrôler, il y aura moins d'eau qui coulera de manière brutale. Avant la construction de cet ouvrage, les 2 fossés existants coulaient dans la nature ; aujourd'hui, ces déversements sont captés avec le système des bassins de rétention. Nous n'avons aucun intérêt à laisser la situation telle quelle, car nous avons eu de gros dégâts notamment un soulèvement de l'enrobé au niveau du lavoir.*

*<u>Ustaritz avec bon sens</u> : Avant d'accorder un permis à lotir, il faudrait que la commune étudie les conséquences liées aux écoulements des eaux et les risques encourues. On vous demande de la vigilance sur la délivrance des permis.*

*<u>UB</u> : Nous sommes largement conscients de cela et l'administration et nous élus restons vigilants.*

*<u>Ustaritz avec bon sens</u> : dernière petite remarque, dans le document présenté la délimitation de la parcelle AD 166 entre le terrain de la chapelle et la maison Houga est fausse. Il faudrait modifier ce document.*

*<u>UB</u> : le document présenté est issu du cadastre, c'est le document officiel. Si des erreurs apparaissent, il faut leur en faire part ; La mairie n'est en rien responsable de cela.*

hodiei buruzko bide zor agiriaren sinatzeko baimena eman baitzuen.

*<u>Ustaritz avec bon sens</u>: zein ondorio ukanen ditu proposamen berriak? Apirilaren 14ko bilkuran, erran nizuen eremu publikoan zeharkako ondorioak izanen zirela. Azken ekaitz handien ondotik, Haitzeko eiherairaino jausten den harrizko partean kalteak izan dira. Zuzeneko ondorioa da, promotoreei ur horien isurarazteko baimena ematen diezuelako. Zuzenean eremu publikora bideratu behar dira. Hori egina izan balitz, ura zuzenean Errobira doan errekatxo batera bideratuko zatekeen. Kasu horretan, gainezka egin du eta eremu publikoan sartzen da. Aldaketak egiten baldin badira, zein izanen dira ondorioak?*

*<u>UB:</u> Pribatuen arteko afera da, lotizamendu pribatu batek pribatu baten eremura isurarazten baitu ura. Gure eremua Gaineko Landak bidea da. Bide horretako urak eremu pribatuko sarera bideratuak dira. CAOBaren eskumena da, eta euri uren isurtze sare osoa finkatuko duen mapa bat sortzen ari gara. Baina ezin da egun batetik bestera egin. Teorian, etxe horiek guziek urtegiak dituzte. Dena behar bezala egin baldin bada, eta hori kontrolatu beharko da, ur gutiago isuriko da kolpez. Obra horiek eraiki aitzin, 2 arroilak naturara isurtzen ziren; egun, isurketa horiek urmaeletara joaten dira. Ez da batere gure onetan egoera den bezala uztea, kalte handiak ukan baititugu; adibidez, mundrunaren altxatzea, latsagi aldean.*

*<u>Ustaritz avec bon sens</u>: Lotizamenduaren egiteko baimenak eman aitzin, herriko etxeak uren isurketak eragin litzakeen ondorioak eta arriskuak aztertu behar lituzke. Baimenen ematean zuhurrago jokatzea galdegiten dizuegu.*
*<u>UB:</u> Hori argi dugu, eta administrazioak eta gure hautetsiek zuhur jokatzen dute.*

*<u>Ustaritz avec bon sens</u>: azken ohar ttipi bat: aurkeztu dokumentuan, kaperako lursailaren eta Houga etxearen arteko AD 166 lursailaren mugaketa okerra da. Dokumentu hori aldatu behar litzateke.*

*<u>UB</u>: aurkeztu dokumentua kadastrotik hartua da, dokumentu ofiziala da. Hutsik baldin badu, kadastrokoei jakinarazi behar zaie. Herriko etxeak ez du horren ardurarik.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : Duhalde ahizpekin bildu gara. Pribatuen arteko afera dela erran duzu, baina kaperako lursaila eta Gaineko landako atekamotza ere hor dira, beraz, nonbait, gure afera ere bada. Sare batera konektatzean, jakin behar da nora joanen den, eta hor, Duhalde ahizpen etxera*

Ensemble pour Ustaritz : nous avons rencontré les sœurs Duhalde. Quand vous dites que c'est du privé – privé, certes mais il y a tout de même le terrain de la Chapelle et toute la desserte de Gaineko landako atekamotza qui sont concernés, donc à un certain moment, nous sommes partie prenante. Quand on se connecte à un réseau, il faut savoir ou ça va aller et ça va chez les sœurs Duhalde. Elles n'ont jamais été informés de cela ; elles l'ont su à l'issue du Conseil du 14 avril. Elles s'en rendent compte une fois que le mal est fait. Pourquoi n'y a-t-il pas eu d'acte notarié.
UB : nous le déplorons aussi. Le cabinet de géomètre aurait dû constituer un rapport tout comme le service instructeur ; mais cela n'étant pas obligatoire, cela n'a pas été fait. Nous proposons à l'ensemble des protagonistes de se réunir en mairie afin de trouver une solution qui ne pénalise personne. Les aménageurs sont tenus de trouver une solution.

Ensemble pour Ustaritz : l'aménageur est en faute, mais ce n'est pas le seul, il y a la responsabilité de celui qui accorde le permis d'aménager. Aujourd'hui, on ne peut plus accorder de permis sur ce lotissement.

UB : ce qui semble incongrue, c'est qu'il n'y ait pas dans les pièces à fournir les servitudes possibles de passage, de réseau. Ce n'est pas obligatoire et cela entraine cette situation. Nous n'accorderons aucun permis tant que cette situation perdurera. Après, les sœurs Duhalde étaient informés de la situation car quand un géomètre intervient, il y a un bornage contradictoire ce qui veut dire que les tous les voisins du terrain sont convoqués et sont au courant du plan. Après ce n'est pas normal que personne ne les ait contactés pour trouver un accord de servitude.

Ensemble pour Ustaritz : effectivement, elles étaient présentes lors du bornage. En revanche, elles nous ont montré les plans et les réseaux d'eaux pluviales n'y figuraient pas.

Ustaritz avec bon sens : Moi, je serai d'accord pour qu'une concertation soit envisagée entre les consorts Oyharcabal et l'ensemble des propriétaires recevant ces eaux. Je trouve un peu surprenant que des propriétaires demandent des contreparties financières pour un passage.

UB : cela concerne l'aménageur. Nous attendons le retour de charque partie pour organiser cette rencontre.

doa. Ez dute sekula horren berririk ukan; apirilaren 14ko kontseilutik landa jakin dute. Kaltea gertatu eta ohartu dira. Zergatik ez da notario-agiririk izan?
UB: pena atzematen dugu, guk ere. Geometra bulegoak txosten bat egin behar zukeen, baita instrukzio zerbitzuak ere; baina, legez beharrezkoa ez denez, ez da egina izan. Protagonista guziei herriko etxean biltzea proposatzen diegu, nehori kalte eginen ez dion aterabide baten atzemateko. Antolamenduaren arduradunek aterabide bat atzeman behar dute.

Ensemble pour Ustaritz: antolamenduaren arduraduna hutsean da, baina ez da bakarra. Antolamendu-baimena ematen duenak ere badu ardura zerbait. Orain, ezin da gehiago baimenik eman lotizamendu horretan.

UB: Harrigarria dena da pasatze eta sare zor posibleak ez agertzea aurkeztu behar diren agirien artean. Legez ez da beharrezkoa, eta horrek gisa horretako egoerak sortzen ditu. Egoera horrek horrela iraunen dueno, ez dugu beste baimenik emanen. Hala ere, Duhalde ahizpek bazuten egoeraren berri. Alabaina, geometra bat jiten delarik, kontrako mugatze bat egiten da. Horrek erran nahi du lursailaren auzo guziei dei egiten zaiela eta planoaren berri ematen zaiela. Dena den, zor akordio baten atzemateko nehork Duhalde ahizpak ez deitu izana ez da normala.

Ensemble pour Ustaritz: bai, mugatzearen mementoan bertan ziren. Baina, planoak erakutsi dizkigute, eta euri uren sareak ez dira agertzen.

Ustaritz avec bon sens: Nik begi onez ikusiko nuke Oyharcabal ezkontideen eta ur horiek hartzen dituzten jabe guzien artean kontzertazio baten planteatzea. Doi bat harrigarria iduri zait jabeek diru-ordainen galdegitea iragate horren truke.

UB: hori antolamenduaren arduradunari dagokio. Alde bakoitzaren arrapostuaren beha gaude bilkura horren antolatzeko.

Pour / alde : 27
Contre / kontra : -
Abstentions / abztenzioak : 2 (Mme BONTAN, M. LASTIRI)

7- AFFAIRES FONCIERES - ACQUISITION DES PARCELLES BK N°113 ET BK N°115 AU QUARTIER ARRAUNTZ – REGULARISATION FONCIERE LIEE A L'EMPLACEMENT RESERVE N°26

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

Dans le cadre d'un bornage dressé en octobre 2003 par le cabinet de Géomètre LALAGÜE et concernant une donation de M. Pierre ALBERDI au profit de M. André ALBERDI, la commune a engagé une démarche d'acquisition d'une bande de 17 m² correspondant à l'emplacement réservé n°26 du PLU afin de régulariser l'élargissement à 8 mètres de plateforme de la route de l'Eglise.

Il est proposé au conseil municipal d'acquérir les parcelles suivantes pour un montant d'un euro symbolique, savoir :

- Parcelle BK n°113 pour 00a 16ca
- Parcelle BK n°115 pour 00a 01ca

Il convient de lever l'emplacement réservé n°26 grevant lesdites parcelles dès lors la cession actée.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

ACCEPTE l'acquisition des parcelles BK n°113 et BK n°115, pour l'euro symbolique,

- ACCEPTE le classement des dites parcelles dans le domaine public,

- AUTORISE Monsieur le Maire à signer toute pièce à cet effet.

8- AFFAIRES FONCIERES – REGULARISATION FONCIERE - APPROBATION D'UN ECHANGE DE PARCELLES ET CLASSEMENT DANS LE DOMAINE PUBLIC

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

A des fins de régularisation foncière visant à mettre en conformité le plan cadastral et la propriété d'une habitation très partiellement construite sur l'espace public il y a plusieurs dizaines d'années (à l'intersection de la rue des Artisans et de la rue du Bourg), il y a lieu de procéder à un échange de parcelles.

Le plan projet de division est joint en annexe de la présente délibération, et concerne :

- Parcelle AN n°204p (en orange sur le plan d'une superficie de 3m²)

7- LUR JABETZEN GAIAK – ARRUNTZAKO BK 113 ETA BK 115 LURSAILEN ESKUALDATZEA – 26. GUNE ERRESERBATUARI LOTU LUR JABETZAREN ERREGULATZEA

Goyheneche jaunak txostena aurkeztu du:

2003ko urrian, LALAGÜE geometra kabineteak mugatze bat egin zuen, Pierre ALBERDI jaunak André ALBERDI jaunari eman ondasun batentzat. Horren karietara, herriak 17 m²ko zinta baten erosteko desmartxak abiatu zituen, THPeko 26. leku erreserbatuaren bereganatzeko eta Elizako bidea 8 metrora zabaltzeko, araudiaren araberakoa izan dadin.

Herriko kontseiluari lursail hauek euro sinboliko baten truke erostea proposatu zaio:

- BK 113 lursaila: 00a 16ca
- BK 115 lursaila: 00a 01ca

Eskualdatze hori erabaki orduko, lursail horiei dagokien 26. leku erreserbatua ezeztatu beharko da.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak aho batez :

- BK 113 eta BK 115 lursailak euro sinboliko baten truke erostea ONARTZEN DU,

- Lursail horiek eremu publikoan sailkatzea ONARTZEN DU,

- Auzapez jaunari xede horri lotu dokumentu ororen sinatzeko BAIMENA EMAITEN DU.

8- LUR JABETZA GAIAK – LURSAILEN ERREGULARIZAZIOA – LURSAIL TRUKAKETA BATEN ONARTZEA ETA EREMU PUBLIKOAN SAILKATZEA

Goyheneche jaunak txostena aurkeztu du:

Kadastra planaren eta duela zenbait hamarkada eremu publikoan partez eraiki bizitoki baten araudiaren araberako ezartzeko (Artisanen karrikaren eta erdiguneko karrikaren bidegurutzean), lursail trukaketa bat egin behar da.

Zatiketa proiektuaren plana deliberamendu honi eransten diogu, eta lursail hauei dagokie:

- AN 204p lursaila (planoan laranjez, 3m²koa)
- AN 204p lursaila (planoan ubelez, 9+2m²koa)

Kadastra lursailen sortzeko gastuak jabe pribatuaren gain izanen dira, berantago.

- Parcelle AN n°204p (en violet sur le plan, d’une superficie de 9+2m²).

La création des parcelles cadastrales sera effectuée aux frais du propriétaire privé, dans un deuxième temps.

La parcelle reçue par la commune sera classée dans le domaine public, en revanche, celle destinée à être cédée au particulier ne nécessite pas d’être ainsi déclassée, le Code général de la propriété des personnes publiques, dans son article L. 2141-1 disposant que « Un bien d'une personne publique, qui n'est plus affecté à un service public ou à l'usage direct du public, ne fait plus partie du domaine public à compter de l'intervention de l'acte administratif constatant son déclassement ».

Le présent échange a été négocié sans soulte.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l’unanimité :

- APPROUVE l’échange de parcelles, sans soulte, tel que présenté dans le plan en annexe et en amont de la présente délibération,

-DIT que les frais induits seront intégralement supportés par le propriétaire privé de la parcelle AN n°204,

- APPROUVE le classement des parcelles reçues dans le domaine public,

- APPROUVE le déclassement du domaine public des parcelles cédées,

- AUTORISE M. le Maire à signer toute pièce visant à la mise en application de la présente décision.

Herriak eskuratuko duen lursaila eremu publikoan sailkatuko da. Aldiz, partikularrari utziko zaionak ez du sailkapen horren beharrik. Alabaina, pertsona publikoen jabetzaren kode orokorreko L. 2141-1 artikuluaren arabera, “pertsona publiko baten ondasuna, ez delarik gehiago zerbitzu publiko baterako baliatzen ala ez badu zuzenean publikoak baliatzen, ez da gehiago eremu publikoaren barne, sailkapen aldaketa zehazten duen administrazio agiriaren egunetik aitzina”.

Trukaketa hori konpentsaziorik gabe negoziatu da.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak aho batez :

- Lursail trukaketaren ONARTZEN DU, konpentsaziorik gabe, erantsi planean eta deliberamendu hau hartu aitzin aurkeztu xehetasunen arabera

- Sortuko diren gastuak AN 204 lursailaren jabe pribatuak osoki bere gain hartuko dituela ADIERAZTEN DU,

- Lursail horiek eremu publikoan sailkatzearen ONARTZEN DU,

- Utzi lursailak eremu publikotik ateratzearen ONARTZEN DU,

- Auzapez jaunari erabaki honen aplikatzeko beharko diren agiri guzien izenpetzeko BAIMENAREN EMATEN DU.

## * FINANCES – ACTION ECONOMIQUE – RESOURCES HUMAINES

### 9- FINANCES - COMPOSITION DE LA COMMISSION D’APPEL D’OFFRES ET DES ADJUDICATIONS

Madame Semerena – Olaizola présente le rapport suivant :

La Commune doit disposer d’une Commission d’appel d’offres (CAO), commission obligatoire au titre des articles L.1414-1 et suivants du Code général des collectivités territoriales.

La CAO est compétente pour décider de l’attribution des marchés publics dont la valeur estimée hors taxe est égale ou supérieure aux seuils européens prévus à l’article L.2123-1 du Code de la commande publique.

## * FINANTZAK – EKINTZA EKONOMIKOA – GIZA BALIABIDEAK

### 9- FINANTZAK – ESKAINTZA DEIALDIEN ETA ADJUDIKAZIOEN BATZORDEAREN OSAKETA

Semerena -Olaizola andereak txostena aurkezten du :

Herriak eskaintza deialdi batzorde bat behar du (EDB), lurralde elkargoen kode orokorreko L.1414-1 eta ondoko artikuluei jarraiki.

Batzorde horren eginkizuna manaketa publikoen kodeko L.2123-1 artikuluan ezarri Europako mailaren parekoak ala handiagoak diren merkatu publikoen esleipenen erabakitzea da. Goian aipatu merkatu publikoen gehigarriek zama orokorra %5 baino gehiagoz emendatzen badute, horiei buruz ere iritzi bat eman behar du.

Elle doit également émettre un avis sur les projets d'avenant aux marchés publics susmentionnés entraînant une augmentation du montant global supérieure à 5%.

Par délibération du 15 juillet 2020, le Conseil municipal avait désigné ses représentants au sein de la Commission d'appel d'offres et des adjudications. A la suite de démissions de plusieurs de ses membres, il y a lieu de procéder de nouveau à la composition de ladite commission.

